

# HUR ASTARBE

«Ez dakit sagardoari zuku guztia atera ote diogun»

Astigarraga, 1978. Sagardogilea. Upel artean jaioa. Sagardoaren epizentroan hazia eta hezia. Mendiola sagardotegiko arduraduna. Ipar Amerikara esportatzen hasi da. Txinan ere txotx egin nahiko luke, aurrera begira.

## Pello Argiñarena

Hur edo sagardo. Nola ase egarria?

Sagardoarekin, jakina. Izenarekin nahiko hur badaukat.

Erromatarrek sagardoari *vinus malis*. Hain txarra al da?

Euskaldunok, berriz, «hau da edari zoragarria» abesten dugu.

Adan eta Eba. Sagarrak ba al du bekaturik?

Sagardoa edatea ez ahal da izango bekatu! Hala bada, nik bekatari izan nahi dut.

Sagardoa. Botika botilan?

Nik bizpahiru katarro behintzat sendatu izan ditut sagardoaren laguntzaz.

Sagardotegia. Asteburuko zur-ruta?

Aste barruan bai izaten dela giro polita: otxotea, bertsolariak... Eta bestelako lasaitasun bat.

Eh txotx, gehiegi edaten duk! Ertzainak zain sagardotegitik gertu. Ertzaintzari baino, norberak bere buruari eta errepideari izan behar dio beldur.

Erdi hutsik edo erdi beterik. Nola egoten da botila?

Hori ikusteko ez dugu denborarik izaten. Behin kortxoa kenduta azkar edaten da gero! Beteta egotetik hutsik egoterako tartea, bat-batean gertatzen da.

Upela. Sagardoaren hotela?

Hobe egoten da doanean eztairitik barrena.


Altzairua edo egurra. Nola jantzi upela?

Kanpoko itxura da gutxienekoa. Barrukoa da balio duena.

Sagardoa esportatzen duzu Ipar Amerikara. Nola egin aurre Coca Colari?

Hamaika erronka zailago ere gainditu izan ditugu euskaldunok. Txinan sartu nahi duzu. Sagardoa eta arroza lagun onak al dira? Sagardoa ongi moldatzen da edozein janarirekin, ez bakarrik bakailaoarekin.

Sagardoa eta txakolina. Real eta Athletic?



Conny Beyreuther

Edari bakoitzak bere liga partikularra jokutzen du.

Sagardoa ilbeheran botilatu behar dela dio tradizioak. Ilargiak edaten al du sagardorik?

Ilargiak sagardoa edaten badu ere, sagardoa guk egiten dugu.

Gazia. Garratza. Geza. G-3. Sagardoaren Gailurra.

Sagardoa, hasiera batean gozoa da, muztioa; gero mikatz bihurtzen da; ondoren garratz bilakatzen da; eta, azkenik, bizitu egiten da.

Edaria edo folklorea. Zer da sagardoa?

Sagardoa lagunarteko edaria da, eta berak sortzen duen mugimendu soziala da folklorea.

Euskal Herriko sagardoa. Bai, baina sagarrak nongoak?

Intxaurrak intxaurrondokoak diren bezala, sagarra sagarrondokoa.

Sidriña eta sagardoa. Non dago aldea?

Asturiasen sidriña. Euskal Herrian sagardoa, euskaldunen edaria, hortxe dago aldea.

Ba al du zuku gehiago sagardoak?

Ez dakit ba. Horixe bera galdetzen diot nire buruari!

Sagardoaren denboraldia hamabi hilabetekoa bihurtzen ari al da?

Sagardoak ez du denboraldirik, urte osoan edateko den edaria da. Biharamuna baino, biharko eguna. Zein da sagardoaren etorkizuna?

Ni oso baikorra naiz. Dena den, asko dugu oraindik ikusteko eta ikasteko.